

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

# Gorria maite zuen amatxinoa



Xabier Etxaniz Erle

Uda iristearekin batera lau ipuin berri aurkeztu zituzten Ikas-eko lagunek. Lauak itzulpenak eta estilo ezberdinekoak; horietako bat, *Gorri!*, esku artean dugun lana eta, oker ez banago, Alice Brière-Haquet idazle oparoaren aurreneko liburua euskaraz. Liburuaren azala gorria dugu, nola ez, zuri-beltzarekin jolastuz irudi bat (basoa eta bidea?) eta egileen izenak eta izenburua azaltzen dira bertan. Gorria dugu, bai, liburu honetako elementu garrantzitsua... beno, gorria maitea duen amatxino batekin hasten da dena: "Behin bazen, non-bait, han, oihan xoko batean, amatxino bat oso pollita. Matelak zituen gorriak, arrasondo bikain gorria, zaia xarmagarri gorria, bai eta erridau gorriak. Hori zuen kolore maiteena". Horrelaxe ekiten diote egileek ipuin honen kontakizunari.

Eta azalean gertatzen den bezala barnean ere zuria, beltza eta gorria erabiliz egini-ko ilustrazioak ageri zaizkigu. Irudiak trazu handiz eginak dira, berriak, indartsuak... baina baita duela mende bateko euskal ilustratzaileek (Txikik eta) eginikoen aire bat dutenak. Amonak alabasoari, bilobari, egiten dizkio hainbat opari, bi galtzerdi belarrean jostatzeko, bi eskularru onddoen biltzeko, lepoko luze-luzea hotz handietako berezia, belarri kuktzeko bat eta, azkenik, txano gorri bat. Baina denetan amonaren opariak arazoak sortarazten dizkio bilobari (bareek uste dute galtzerdiak marrubiak

## Gorri!

ALICE  
BRIÈRE-HAQUET

Ilustrazioak:

Élise Carpentier

Itzulpena:

Jean-Louis Davant.

Ikas, 2018.

38 orrialde,  
haurrentzat

*Alice Brière-Haquet (1979); idazle, ikerlari eta itzultzaile frantziarra.*



direla, untziek eskularruak sagartzat hartzen dituzte, zezena lepokoaren atzetik joaten da, okilo batek mokokatzen dizkio belarriak har baten bila, erresiñolak txanoa mokokatzen du gerezia zelakoan...) azkenik, amatxinok burutik oinetarainoko jantzi gorria egiten dio, oinetako gorriak, galtza gorriak, jaka gorria... eta txano gorria.

Eta biloba oihanean barneratzen da: "Horrekin ez zaizu, sinets nazazu, deus gertatzen ahalko".

Eta amonaren hitz horiekin amaitzen da ipuina, edo ipuinaren testua, izan ere, irudian basoan barrena ageri zaigu neskatoa, txano gorritz, eta zuhaitzen artean otsoa du begira...

Istorio sinplea, zubereraz ere Ikas-en webgunetik entzun daitekeena, eta hegoaldekoontzat zenbait hitz zailtxo gerta badaitezke ere, erraz jarraitzen dena eta jolaserako aukera paregabea ematen duena (eta hori guztia bost eurotan). ■